



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2025eko bigarren hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA:

EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren osagaiak	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak	13
Eranskina – Indizeak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- AEko familien konfiantza gutxitu egin da eszeptizismoa dela eta
- ezkortasun handiagoa Europako familien artean
- Europako herrialde nagusietako familien mesfidantza handiagoa




1 EAEko familien konfiantza gutxitu egin da eszeptizismoa dela eta

Urteko bigarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza zertxobait ezkorra (-6) izan da eta horrek nolabaiteko zuhurtzia-joera baieztatu du. Hala, konfiantza-indizea zertxobait negatiboa izatea eragin du horrek. Gainera, itxuraz, 2025eko lehen sei hilekoko emaitzek 2024ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta okerragotze-profila (-2) baieztatu dute; orduko datuak izan ziren 2022ko hasieratik lortutako onenak (+8).

Hain zuzen ere, EAEko kontsumitzaileen konfiantzak izandako batez besteko balioa (-5) 2024ko lehen sei hilekoan izandakoa baino okerragoa (-4) da dagoeneko. Hori dela eta, bigarren sei hilekoko emaitzak zehaztuko du EAEko familien konfiantza aurten mantendu edo okertu egingo den.

Okerragotze hori, batez ere, nazioarteko ziurgabetasun politikoak eragiten du, eta hori ezin da konpentsatu konfiantzaren beste eremu batzuek erakutsitako kaudimenarekin, hala nola hurbileko ingurunearen ekonomia- eta lan-jarduera positiboarekin, adibidez.




2 | ezkortasun handiagoa Europako familien artean

EB-27ko familien artean, ezkortasuna EAEko familiaena baino zertxobait handiagoa da (-15ekoa eta -6koa, hurrenez hurren). Mesfidantzan dagoen alde hori modu jarraituan ikusi dugu 2021etik, eta azken hiruhilekootan profilak okerrera egin du (-12; -12; -13; -15, 2024ko hirugarren hiruhilekotik 2025eko bigarren hiruhilekora).

Hala ere, 2024ko eta 2025eko lehen seiuhilekoko batez besteko balantzea bat dator (-14) eta, 2022ko eta 2023ko erregistro baxuenetatik aldenduta dagoen arren (-22 eta -17, urteko batezbestekoari dagokionez), ez du lortu balio neutraletara gerturatuko lukeen susperraldi-joera sendotzea.

EAEko familien konfiantza errealitate sozio-ekonomikoaren mende dago. EB-27ko (+% 1,1) eta Euroguneko (+% 0,9) hazkunde ekonomikoarekin lotutako igurikimenek behera² egin dute nazioarteko hegakortasuna dela eta. Horrekin lotuta, Espainia da hazkunde adierazgarria izan duen ekonomia nagusietako bakarra (+% 2,6), Alemania (% 0,0), Frantzia (+% 0,6) eta Italia (+% 0,7) ahul agertu baitira.




1. EB-27ko 2025eko bigarren hiruhilekoko datua behin-behinekoa da. Apirila-maiatza batezbestekoa. Ez dago eskuragarri Espainiarentzat.
2. Europako Batzordea, 2025eko maiatza

3 Europako herrialde nagusietako familien mesfidantza handiagoa

Erreferentziazko Europako herrialde nagusiak kontuan hartuta, haien mesfidantza maila EAEko familia bakoitzaren nabarmen handiagoa da. Zehatzago esanda, Alemaniako familiak (-10) dira ezkortasun txikiena erakutsi dutenak, eta haien ondoren datoz Danimarkakoak (-14), Frantziakoak (-17) eta Herbehereetakoak (-19). Azken horren kasuan, mesfidantza maila handiagoa da eta, gainera, azken hiruhilekoan are gehiago okertu da.

Alemaniako familien konfiantzari dagokionez, 2024an behera egin zuen Europako ekonomia handi bakarra izan zen arren (-% 0,2), panel horren baitan oraindik ere ezkortasun txikiena duena da, eta zertxobait hobetu da (+1 puntu). Dena den, Danimarkako (-4 puntu), Frantziako (-3) eta Herbehereetako (-3) familien konfiantza (erregistro okerrean kontuan hartuta) okertu egin da urteko lehen hiruhilekoko datuekin alderatuta, eta kasu bakoitzaren gatazka politikoaren ondorioa izan daiteke.

Kontsumitzaileen konfiantza. EAE eta erreferentziazko herrialdeak¹



1. 2025eko bigarren hiruhilekoko datua behin-behinekoa da. Apirila-maiatzak batezbestekoa


EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGAIK

- ekonomia orokorraren bilakaerari buruzko ezkortasuna handitu egin da
- baina oraingoan ere ezkorak dira langabeziaren bilakaerarekin lotutakoak
- ezkortasun handixeagoarekin familiako ekonomiaren bilakaeraren inguruan
- eta aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimenak positiboak dira
- konfiantzaren lau osagaietatik bakarra okertu da

4 | ekonomia orokorraren bilakaerari buruzko ezkortasuna handitu egin da

EAEko familiek urtearen hasieran ekonomia orokorrari buruz zituzten igurikimenek okerrera egin dutela baieztatu da bigarren hiruhilekoan (-21; -2 puntu). Ezkortasun handiago hori honako hauek baldintzatu dute: egoera ekonomikoak okerrera egingo duela uste duten familien kopuru handiagoa (% 49,1; ehuneko +6,1 puntu) eta hobera egingo duela uste duen taldearen egonkortasuna (% 12,6; ehuneko +0,6 puntu); aldiz, berdin mantenduko dela uste dutenen kopuruak behera (% 38,3; ehuneko -6,7 puntu) egin du.

Hau da, egoera txarrenak aipatzen dituzten albisteek baldintzatzen dituzte ekonomia orokorraren garapenari buruzko igurikimenak, eta benetako albisteek (positiboak dira, gainera) ez dute lortu hori guztia konpentsatzea: Euskadiko BPGaren hazkundera (Eustat) urteko lehen hiruhilekoan % 2,1ekoa izan da eta urteko igurikimenekin bat etorri da (+% 2,1ekoa, 2025erako).




5 | baina oraingoan ere ezkorrak dira langabeziaren bilakaerarekin lotutakoak

2024an, langabeziaren bilakaerari buruzko igurikimenak ia neutralak izan zirela esan dezakegu, eta urtea hobekuntza txikiarekin amaitu zen. Hala ere, 2025ean nolabaiteko baikortasunari eutsi zaio, eta balio positiboak izan dira dagoeneko sei hiruhilekoz jarraian.

Zehatzago esanda, EAEko familien erdiak baino gutxixeagok uste du langabezia gaur egungoen antzeko mailatan mantenduko dela hurrengo hamabi hilabeteotan (% 48,1; ehuneko -0,9 puntu), familien heren batek (gutxi gorabehera) uste du langabezia jaitsi (% 31,0; ehuneko -0,6 puntu) egingo dela eta bostetik batek (% 20,9; ehuneko +1,5 puntu) uste du igo egingo dela.


Igurikimen positibo horiek bat datoz lan-merkatuaren bilakaerarekin (apirila-maiatza batezbestekoa): hala, afiliazioa 1.026.995 kotizatzailetara igaro da, eta erregistratutako langabezia 105.735 lagunetan (+% 0,9 eta -% 1,6, urte arteko tasan, hurrenez hurren) geratu da. Hori dela eta, EAEko ekonomia enpleguari dagokionez maximotan dago (*eta, agian, zailena haztea izango da, baina giza baliabideen faltagatik*).



6 | ezkortasun handixeagoarekin familiako ekonomiaren bilakaeraren inguruan

Urteko bigarren hiruhilekoan eszeptizismo apur bat handiagoa ikusten da familiako egoera ekonomikoari dagokionez (-9; -3 puntu), eta apur bat urrundu da neutraltasunetik eta 2024. urte osoan ikusitako balioetatik. Emaitez erakusten dutenez, egoera ekonomikoak okerrera egingo duela aurreikusten duten familien proportzioak gora egin du (% 27,7; ehuneko +7,9 puntu); aldiz, mantendu egingo dela uste duten familien kopuruak behera egin du (% 61,8; ehuneko -8,7 puntu) eta datozen hamabi hilabeteotan egoera ekonomikoak hobera egingo duela uste duten familien kopurua mantendu egin da (% 10,5; ehuneko +0,8 puntu).

Paradoxa dirudien arren, familien kontsumoaren bilakaerak (Eustat) gorantz egin du eta 2025eko lehen hiruhilekoan % 2,6ko gorakada izan du. Ondorioz, emaitza horrek 2024koa hobetu du (+% 2,1, +% 2,3, +% 2,4 eta +% 2,5 urte arteko tasan, lehen hiruhilekotik hasi eta laugarren hiruhilekora arte): herritarrek beren familiaren ekonomian gero benetan izandako okerragotzea baino handiagoa gertatuko dela aurrez ikusi dute.




7 | eta aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimenak positiboak dira

EAEko familien artean, aurreztearekin lotutako igurikimenak neutralak izan dira urtearen hasieran, baina urteko bigarren hiruhilekoan zertxobait hobetu dira (4; +3 puntu) eta datua positiboa izan da sei hiruhilekotan jarraian. Hala, EAEko familien ia erdiak (% 49,5) uste du hurrengo hamabi hilabeteotan aurreztu egingo duela, bereziki heren batek ziur aurreztuko duela dioelako (% 30,6, ehuneko +8,0 puntu). Familien beste erdiak, aldiz, seguru asko edo ziur ezingo duela aurreztu uste du.

Emitza hori zuhurtzian oinarritutako aurrezkiarekin lotuta dagoela dirudi, ekonomia orokorraren eta familiako ekonomiaren inguruko igurikimenek izandako jaitsiera arina dela eta. Horrekin lotuta, azpimarratu beharrekoa da EAEko ia lau familatik hiruk adierazi duela zerbait aurreztu duela (aurreko hamabi hilabeteetan). Ratio horrek nabarmen gainditzen du (hurrengo hamabi hilabeteotan) aurreztuko dutela uste duten familien erdia.

Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak. EAE



8 | konfiantzaren lau osagaietatik bakarra okertu da

Urteko bigarren hiruhilekoko emaitzek erakusten dute EAEko familien konfiantzak negatiboan jarraitzen duela (-6) eta, apur bat urruntzen bada ere, neutraltasunetik gertu dago oraindik ere. Lau indize partzialen bilakaerak eragin du emaitza hori:

- Ekonomia orokorraren bilakaerari dagokionez, ezkortasun argia (-21) ikus daiteke. Emaitza hori erabat bereizita dago langabeziaren bilakaerari buruzko igurikimen positibotik (4); izan ere, bi adierazleek "noranzko berean" mugitzea espero daiteke.

Baliteke lehenengoa kanpoko informaziotik abiatuta eraikitzea (ezkorra izan ohi da). Aldiz, bigarrena gertuko informazioarekin osatzen da (senideek, lagunek eta abarrek emandakoarekin) eta egiaztagarriagoa izaten da. Bi adierazle partzial horiek ia ez dute aldaketarik izan.

- Familiak aurrez ikusi dutenez, familiako ekonomiaren bilakaerak okerrera egingo du (-9). Hain zuzen ere, horixe da lehen hiruhilekoarekin alderatuta atzera egin duen adierazle bakarra. Aldi berean, aurrezteko gaitasuna hobetu egin da (+3) eta positiboa da oraindik ere: bi adierazleen irakurketa bateratua eginez gero, zuhurtziazko aurrezkia nagusitu liteke, aurrezteko joera duen gizartean.


Familiaren konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	2022	2023	2024	IIH-24	IVH-24	IH-25	IIH-25	Aldea	
Familiaren konfiantza	-11	-9	-4	-4	-2	-4	-6	-2	▶
Ekonomia orokorra	-23	-21	-15	-15	-13	-19	-21	-2	▶
Etxeko ekonomia	-17	-12	-5	-6	-4	-6	-9	-3	▼
Langabeziaren bilakaera	-1	-4	2	0	5	5	4	-1	▶
Aurrezteko gaitasuna	-2	-2	2	3	3	1	4	+3	▲

⇔ (±2 puntuko aldea)

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN EROSKETA-ERABAKIAK

- familien aurreikuspenen arabera, prezioek gorantz egiten jarraitu dute
- okerrera egin du erosteko unearen (oraingoaren) balorazioak
- eta neutralak dira erosketa handiak egiteko igurikimenei dagokienez
- etxebizitza eta ibilgailua erosteko asmoa mantendu egin da
- okerrera egin dute kontsumoarekin, inflazioarekin eta erosteko unearekin lotutako igurikimenek




9 | familien aurreikuspenen arabera, prezioek gorantz egiten jarraitu dute

Urteko bigarren hiruhilekoan areagotu egin da prezioen bilakaerari buruzko igurikimenen inguruan EAEko familiek erakutsitako ezkortasuna (-18) eta azken hiruhilekoetan ikusitako okerragotze-ideia hori sendotu da (-1, -15 eta -18, 2024ko laugarren hiruhilekoan eta 2025eko lehen eta bigarren hiruhilekoetan).

Okerragotze hori hurrengo hamabi hilabeteetan prezioak aurreko hamabi hilabeteetan baino azkarrago (% 38,2; ehuneko +3,3 puntu) haziko direla uste duten familien gorakadak eragin du, prezioak mantenduko direla (% 42,0; ehuneko -3,4 puntu) edo motelago haziko direla uste dutenekin alderatuta (% 19,8; ehuneko -0,1 puntu). Baina eskuragarri dauden azken datuek (apirila) inflazioaren beherakada baieztatu dute (+% 2,6 eta +% 2,2, urtetik urterako tasan EAEn eta Estatuan, KPI orokorrarekin alderatuta).

Beste behin, datu errealeen bilakaera (inflazioaren joera) ez dator bat pertsonek aurreikusten dutenarekin (azkarrago haztea inflazio handiagoa da), eta, beraz, agian, prezioak dagoeneko oso altuak izatearen pertzepzioa islatzen du (neurri handiagoan).

———— Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsonek %a) ————



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez; ² Prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak kenduta


10 | okerrera egin du erosteko unearen (oraingoaren) balorazioak

Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?

EAEko familiek balorazio negatiboa egin dute erosketa handiak egiteko egungo uneari buruz (-23). Balorazio hori okertu egin da urteko lehen hiruhilekoarekin alderatuta (-7 puntu), eta 2023an ikusitako ratioen antzekoa da (urteko batez bestekoa: -27).

Oro har, EAEko familiek erosteko unearen gaineko balorazio neutroa egin dute (% 61,9; ehuneko -8,7 puntu), gora egin dute une txarra dela uste duten familiek (% 30,7; ehuneko +8,1 puntu) eta behera egin du une ona dela uste dutenen taldeak (% 7,8; ehuneko +1,0 puntu).

Erosteke unearen balorazioarekiko axolagabetasun hori "beharrik ez izatearekin" edo erosteko gaitasunarekin (beharrezkoa izanez gero) lotuta egongo litzateke; bestalde, une txarraren balorazioa erosketa horiei (beharrezkoak izan ala ez) aurre egin ezin izatearekin lotuta dago.




11 eta neutralak dira erosketa handiak egiteko igurikimenei dagokienez

Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

Urteko bigarren hiruhilekoan, erosketa handiak egiteari buruzko igurikimenak neutralak izan dira, baina pixka bat okerrera egin dute aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (0; -4 puntu), eta horrek agerian uzten du EAEko familien artean nolabaiteko eszeptizismoa dagoela erosketa handiak egiteko.

Zehazki, datozen hamabi hilabeteotan egingo dituzten erosketak azken urtean baino handiagoak izango direla uste dutenak EAEko bost familiatik batera baino gutxiagora murriztu dira (% 19,9; ehuneko -5,4 puntu). Erosketak berdin mantenduko direla aurrez ikusi dutenak hamarretik sei baino zertxobait gutxiago dira oraingoan ere (% 59,5; ehuneko +1,8 puntu), haien kontsumo maila gutxitu egingo dutela uste duten familiak bostetik batera arte igo dira (% 20,6; ehuneko +3,6 puntu).


— Zure ustetan, nolakoak izango dira etxeko erosketak datozen 12 hilabeteetan¹ —
(pertsoneen %a)




¹ Azken 12 hilabetei dagokienez.

12 | etxebizitza eta ibilgailua erosteko asmoa mantendu egin da

EAEko familien % 0,9k uste du (ia seguru) etxebizitza bat erosiko duela datozen hamabi hilabeteotan, eta ehuneko hori aurreko aldietakoaren antzekoa da. Etxebizitzen salerosketari buruz eskura dauden datuen¹ (2025eko martxoa) arabera, EAEn 2025eko lehen hiruhilekoan egindako higiezinaren transakzio kopurua 6.764koa izan da; hau da, urte arteko tasan, gorakada % 25,0koa izan da.



Bestalde, ez da aldaketarik ikusten EAEko familiek ibilgailua erosteko duten asmoan. Hala, familien % 4,7k uste du ibilgailu bat (ia seguru) erosiko duela hurrengo hamabi hilabeteotan. Eskura dauden azken datuen² (2025eko urtarrila-maiatza) arabera, EAEn saldutako ibilgailu berrien kopurua 16.656 unitatekoa izan da; hau da, urte arteko gorakada % 13,9koa izan da.



¹ EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta); ² Anfac.

13 | okerrera egin dute kontsumoarekin, inflazioarekin eta erosteko unearekin lotutako igurikimenek

Bigarren hiruhilekoko emaitzek agerian utzi dute kontsumo-adierazleei buruzko eszeptizismoa (oso lotuta daude ekonomia orokorraren bilakaerari buruzko igurikimenekin). Hala,

- Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenek okerrera egin dute (-18), eta EAEko familiak urrundu egin dira 2024an ikusitako baikortasunetik (+4). Dena den, inflazioak behera egiten jarraitzen du, baina, beharbada, nahi baino motelago.
- Balio negatiboenetik abiatuta, erosteko unearen balorazioa (-23) da azken hiruhilekoan gehien okertu den elementua (-7 puntu). Kasu honetan, hainbat faktore konbinatzen ditu, hala nola ekonomia orokorraren eta prezioen ibilbidearen inguruko aurreikuspen okerragoak. Bi emaitzek okerrera egin dute erosteko unearen balorazioan.
- Hala eta guztiz ere, erosketarekin lotutako igurikimenena da adierazle partzial positibo bakarra (0), baina okerrera egiteko joera erakutsi du (-4), lehen aipatu dugun zuhurtzia dela eta.
- Etxebizitza eta ibilgailua erosteko asmoak ez du aldaketarik izan, eta etxebizitzaren (+% 25,0, urteko lehen hiruhilekoko urtetik urterako tasan) eta ibilgailuen (+% 26,4, 2025eko apirila-maiatzeko urtetik urterako tasan) salerosketa-merkatuaren egoera oso positiboa da, nahiz eta bi kasuetan historikoki maila baxuetan egon.


Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	<u>2022</u>	<u>2023</u>	<u>2024</u>	<u>III H-24</u>	<u>IV H-24</u>	<u>I H-25</u>	<u>II H-25</u>	<u>Aldea</u>	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-48	-6	4	9	-1	-15	-18	-3	▼
Erosteke unearen balorazioa	-34	-27	-19	-23	-12	-16	-23	-7	▼
Erosketak egiteko igurikimenak	-11	-7	-1	0	1	4	0	-4	▼

⇔ (±2 puntuko aldea)

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantzaren indizea
euskal familien konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera
beste adierazle batzuk



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2022	2023	2024	III H-24	IV H-24	I H-25	II H-25	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-11	-9	-4	-4	-2	-4	-6	▶
• Estatua*	-26	-19	-15	-14	n.d	n.d	n.d	
• EB*	-22	-17	-13	-12	-12	-13	-15	▶
○ Frantzia*	-18	-17	-14	-13	-15	-13	-17	▼
○ Alemania*	-20	-15	-11	-10	-10	-12	-10	▶
○ Danimarka*	-14	-8	-5	-4	-6	-10	-14	▼
○ Herbehereak*	-25	-18	-11	-10	-12	-16	-19	▼
Osagaiak: familien konfiantza. EAE								
• Ekonomia orokorra	-23	-21	-15	-15	-13	-19	-21	▼
• Etxeko ekonomia	-17	-12	-5	-6	-4	-6	-9	▼
• Langabezia	-1	-4	2	0	5	5	4	▶
• Aurrezkia	-2	-2	2	3	3	1	4	▲
Beste indize batzuk. EAE								
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-48	-6	4	9	-1	-15	-18	▼
• Erosteako unearen balioztapena	-34	-27	-19	-23	-12	-16	-23	▼
• Erosketak egiteko igurikimena	-11	-7	-1	0	1	4	0	▼
Erosketa handiak. EAE**								
• Etxebizitza	1,2	0,6	0,5	0,2	0,6	0,8	0,9	▶
• Autoa	6,5	4,3	5,5	5,8	5,8	4,9	4,7	▶

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* II. hiruhilekoko datuak apirila-maiatza batez bestekoari dagozkio. Ez dago eskuragarri Espainiarentzat, beraz, 2024ko urteko datuak lehen hiru hiruhilekoak soilik hartzen ditu

** Erosteko probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II | euskal familien konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera

	2022	2023	2024	III H-24	IV H-24	I H-25	II H-25	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-11	-9	-4	-4	-2	-4	-6	▶
Adin-taldeak								
• 25 eta 39 urte bitartean	-4	-10	-9	-9	-11	-9	-14	▶
• 40 eta 54 urte bitartean	-14	-9	-3	-2	-3	-1	-9	▶
• 55 eta 64 urte bitartean	-11	-6	0	2	1	-6	0	▼
• 65 eta 74 urte bitartean	-14	-12	-2	-9	6	-2	5	▲
Lan egoera								
• Landuna (soldatapekoa/ norbere kontura)	-10	-7	-4	-3	-4	-5	-9	▼
• Langabea	-19	-23	-17	-16	-13	-9	-9	▶
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-12	-9	0	-5	5	-2	3	▲
Familia-unitatearen hileko errenta								
• 1.700 €-rainokoa	-22	-20	-16	-13	-14	-17	-11	▲
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	-11	-9	-5	-7	-3	-5	-8	▼
• 2.800 €-tik gorakoa	-1	-1	3	2	4	0	-1	▶

⇔ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	II H – 24	III H – 24	IV H – 24	I H – 25	II H – 25 _b	(azkena)
BPG	2,1	2,0	2,1	2,1	--	I. Hiruhilekoa
Familien kontsumoa	2,3	2,4	2,5	2,6	--	I. Hiruhilekoa
Afiliazioa	1,0	-1,2	1,7	-0,4	0,9	apirila-maiatza
Erregistratutako langabezia	-3,3	1,6	-1,1	0,7	-2,7	apirila-maiatza
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	1,9	1,7	0,9	-0,2	--	I. Hiruhilekoa
Etxebizitzaren salerosketa	-8,4	32,6	-5,1	8,5	--	I. hiruhilekoa
Ibilgailuen matrikulazioa	4,9	-10,4	33,3	-15,8	18,4	apirila-maiatza

b: behin behinekoa

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzaren salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Anfac. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziatzko datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, azken aldakuntza behin behinekoa da eta hori kalkulatzeko eskura dagoen azken datua (bi hilabete) hartzen da kontuan.

Erreferentziatzko datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatzeko da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esan nahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ *Consumer Confidence Indicator*, dokumentu honetan familien konfiantzaren indize bezala aipatzen dena, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobeagorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAeko 800 laguni egin zaie
- 2025ko maiatzaren 12tik 23ra (2025ko II. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzaileen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm